

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Behin betiko onestea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantzaren aldaketa

Igaro da Udalbatzaren 2025eko maiatzaren 7ko Osoko Bilkurak hartutako hasierako erabakia, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza arautzen duen zerga ordenantza aldatzekoa, jendaurrean jartzeko epea. Epe horretan, ordenantzaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera. 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da behin betiko erabakia, eta argitaratzen denetik aurrera aplikatuko da.

Erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Justizia Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzien salan, 2 hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Nolanahi ere, bidezko jotzen den beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Berantevilla, 2025eko urriaren 6a

Alkatea

ISABEL ARBAIZAGOITIA PERAL

Aldatzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan (41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa) eta zerga honi buruzko foru arauan jasotakoarekin bat etorritik, udal honek eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ezarri eta eskatzen du ordenantza honen arabera, zeinaren osagai baita aplikatu beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua. Ordenantza hau udalerri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua. Zerga egitatea da edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horretarako beharrezkoa bada obra edo hirigintza lizentzia, lizentzia lortu edo ez, edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea edo aldez aurretik jakinaraztea, baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea Berantevillako Udalari badagokio.

4. artikulua. Besteak beste, honako hauek daude zergapean:

1. Oin berriko edozein eraikin edo instalazio egiteko obrak.
2. Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalazio handitzeko obrak.
3. Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalaziori eragiten dioten eraberritze edo aldaketa obrak.

4. Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalazioren kanpoko itxura aldatzeko obrak.
 5. Eraikinen barruko antolaketa aldatzeko obrak, haien erabilera edozein dela ere.
 6. Behin-behineko izaeraz egitekoak diren obrak, 2/2006 Legean (ekainaren 30ekoa, lurzoru eta hirigintzarena) aipatzen direnak.
 7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
 8. Lur mugimenduak (esaterako, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak), baldin eta ez badaude zehaztuta eta programatuta baimendu edo onartutako urbanizazio edo eraikuntza proiektu batean egin beharreko obra gisa.
 9. Eraikuntzen eraispena, berehalako aurriaren adierazpena egin zaienena izan ezik.
 10. Aparkalekuetarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.
 11. Edozein obra, eraikuntza eta instalazio, ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoen inbertsioa dakartenak eta obra edo hirigintza lizentzia lortu beharra dutenak.
- 5. artikulua.** Ez zaie zerga hau aplikatuko higiezinenetan egindako eraikuntza, obra eta instalazioei, haien jabari titulartasuna udalarena bada, eta udala bera bada obren jabea.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua

1. Honako hauek dira zerga honen subjektu pasiboak, zergadun gisa: eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten diren higiezinaren jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak, zergen foru arau orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 35. artikuluan aipatzen dituenak, baldin eta obren jabe badira; gainerako kasuetan, obraren jabe dena hartuko da zergaduntzat.
2. Udalaren zerga administrazioan era sinesgarrian egiaztatu ezean obraren jabea obra egiten den higiezinaren jabeaz beste pertsona edo entitate bat dela, iritziko da hura higiezinaren jabea dela.

7. artikulua

1. Ordezko subjektu pasibo izango da eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko baimena eskatzen duena edo erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko berriematea aurkezten duena edo eraikuntza, instalazioa edo obra egiten duena, baldin eta ez badira zergadunak berak.
2. Ordezkoak ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari.

IV. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

8. artikulua

1. Zergatik salbuetsita daude:
 - a) Estatuaren, autonomia erkidegoen, lurralde historikoen edo toki erakundeen jabetzako eraikuntza, instalazio eta obrak, zergapekoak izan arren, baldin eta helburua errepideak, trenbideak, aireportuak edo obra hidraulikoak egitea edo herrien saneamendua eta haiek sortzen dituzten hondakin uren arazketa bada, nahiz eta erakunde autonomoek kudeatu, bai inbertsio berriko obrak, bai kontserbazio obrak.
 - b) Arabako Lurralde Historikoko udalen jabetzako eraikuntzak, instalazioak eta obrak egitea, baldin eta helburua herritarren zerbitzua edo erabilera bada.
 - c) Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Foru Arauaren 4. artikulua 1. apartatuaren k) letran jasotako salbuespena aplikatu ahal zaien ondasunetan eraikuntzak, instalazioak eta obrak egitea.

2. Zerga hobaria izango dute:

a) Zerga honen ehuneko 90eko hobaria izango dute lehendik dauden eraikin edo eraikuntzetako oztopo arkitektonikoak deuseztatzen dituzten eraikuntza lanek.

b) Era berean, zerga honetan hobarituta egongo dira udalerri honetako herri guztietan dauden eraikinetan harria agerian uzteko eta fatxadak pintatzeko diren obra guztiak, portzentaje hauetan:

1. Zerga honen ehuneko 90eko hobaria izango dute hiri antolamendurako plan orokorreko katalogoan "historia eta arkitektura intereseko ondasun kalifikatu" bezala jasota dauden eraikuntzek, eta erreforma integratuko plan bereziko I. taldean dauden eraikuntzek.

2. Zerga honen ehuneko 85eko hobaria izango dute hiri antolamendurako plan orokorreko katalogoan "Euskal Autonomia Erkidegoko monumentu edo monumentu-multzo deklaratzeko proposatutako ondasun higiezin" bezala jasota dauden eraikuntzek, eta erreforma integratuko plan bereziko II. taldean dauden eraikuntzek.

3. Zerga honen ehuneko 80ko hobaria izango dute hiri antolamendurako plan orokorreko katalogoan "Euskal Autonomia Erkidegoak udalerri mailan babesteko proposatutako ondasun higiezin" bezala jasota dauden eraikuntzek, eta erreforma integratuko plan bereziko III. taldean dauden eraikuntzek.

4. Zerga honen ehuneko 75eko hobaria izango dute hiri antolamendurako plan orokorreko katalogoan jasota dauden gainerako eraikuntzek, eta erreforma integratuko plan bereziko IV. taldean edo V. taldean dauden eraikuntzek.

c) Ehuneko 99ko hobaria zerbitzu edo erabilera publikorako diren eraikuntza, instalazio edo obretarako, baldin eta kuadrilla eratutako Arabako lurralde erakundeen jabetzakoak badira.

V. ZERGA OINARRIA**9. artikulua**

1. Zergaren oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua da; benetako kostutzat burutzapen materialaren kostua joko da.

2. Ez dira zerga oinarrian sartzen balio erantsiaren gaineko zerga eta araubide berezietako berezko beste antzeko zerga batzuk, ez eta eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasa, prezio publiko eta ondare prestazio publiko eta tokian tokikoak ere, ez eta profesionalen soldatak, kontratistaren enpresa etekinak, eta, zorrotz hartuta, gauzatze materialaren kostuan sartzen ez diren gainerako kontzeptuak ere.

3. Udal teknikariek finkatuko dute zergaren behin-behineko likidaziorako zerga oinarria, lizentziarik, erantzukizunpeko adierazpenik edo aurretiazko jakinarazpenik gabe hasitako eraikuntza, instalazio eta obretan.

VI. ZERGA KUOTA**10. artikulua**

Zerga honen kuota kalkulatzeko, eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuko zaio zerga oinarriari.

VII. SORTZAPENA

11. artikulua. Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean gertatuko da, nahiz eta dagokion baimenik ez eduki edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiko komunikazioa ez aurkeztu.

VIII. KUDEAKETA

12. artikulua. Aginduzko lizentzia lortzen denean, behin-behineko likidazioa egingo da. Zerga oinarria zehazteko, interesa dutenek aurkeztutako aurrekontua erabiliko da, dagokion elkargo ofizialak behar bezala ikus-onetsia; bestela, udal teknikariek zehaztuko dute zein den zerga oinarria, proiekturako kalkulatzeko den kostuaren arabera.

13. artikulua. Behin lizentzia emanda hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko beste likidazio bat egitearren, hasierako aurrekontuari gehitu zaion zenbatekoaren arabera.

14. artikulua

1. Benetan egindako eraikuntza, instalazio edo obrak ikusita, eta horien kostu erreala eta benetakoa kontuan hartuta, udalak dagokion egiaztapena egingo du, eta, beharrezkoa bada, zerga oinarria aldatuko du, behin betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatu, edo, hala badagokio, itzuli egingo dio.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo obrari behin-behineko onespina eman eta hurrengo hilean, horren aitorpena aurkeztu beharko da udal administrazioak emandako inprimakian. Horrekin batera, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztu behar da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, ahal denean; bertan, obren kostu osoa ziurtatu behar da, bai eta proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria onura eta horien ondoriozko gainerako eskubideak ere.

3. Aurreko artikuluan aipatzen den nahitaezko aitorpena eraikuntza, instalazioa edo obra amaitzen denetik hilabete pasatu baino lehen ez aurkeztea zergen arloko arau haustea izango da.

15. artikulua

Zergaren likidaziorako, ondorio berak edukiko dituzte administrazio isiltasun positiboaren bidez ematen diren lizentziek eta berariaz ematen diren lizentziek.

16. artikulua

Udalak zerga honen autolikidazio prozedura ezarri ahal izango du, eta, prozedura hori ezartzen den egunetik aurrera, subjektu pasiboa behartuta egongo da obren aurreikusitako kostuaren autolikidazioa aurkeztera, nahitaezko obra edo hirigintza lizentziaren eskaerarekin batera, edo erantzukizunpeko adierazpena edo, hala badagokio, aurretiazko jakinarazpena aurkeztera.

17. artikulua

Baimen baten titularrak baimendutako obra, eraikuntza edo instalazioa egiteko asmoa bertan behera uzten badu eta hori idatzizko uko egitearen bitartez adierazten badu, udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo guztiz baliogabetuko du.

18. artikulua

Zerga borondatez ordaintzeko hilabete izango da, likidazio jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

IX. AZKEN XEDAPENA

Zerga ordenantza hau eta haren eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta indarrean egongo dira aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Eranskina

TARIFAK	
ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBRA MOTA	KARGA TASA
Tasa orokorra	% 3,5
Eusko Jaurlaritzak sustatutako babes ofizialeko etxebizitzak, Berantevillako Udalarekin hitzarmena dutenak, bai eta babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenak ere, sustatzailea edozein dela ere	% 2,5